

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

TXERTOAK EZ DIRA HAURRENTZAT BAKARRIK

Txertoek ez dute adinik, baina pertsonak bai, eta komeni da txertatzeko aukera helduaroan ere aintzat hartzea, nahiz eta jende askok ez dien jaramonik egiten osasun-erakundeek arlo horretan egiten dituzten gomendioei.

Hurrekin zalantza gutxi izaten dituzte gurasoek, eta ia gehienei jartzen dizkiete txertoak; baina helduaroan ez da berdin gertatzen, eta gutxik dakite txertoek zer-nolako onurak egin ditzaketen behin adin batera iritsita, eta oso gutxi dira txertoa hartzea erabakitzen dutenak.

Adina arrisku-faktore handia da infekzio larrietan, batzuek heriotza ere ekartzen baitute. Urteetan aurrera egin ahala, zahartu egiten da immunitate-sistema, lokartu bezala egiten da eta astiro erantzuten du. Horrexegatik agertzen dira infekzioak sarriago eta eraginak kaltegarriagoak izaten dira.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, SEGG Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkarteko adituek gomendatzen dute 60 urtetik aurrera honako txerto hauek hartzea: gripearen aurkakoa, pneumokokoaren aurkakoa, tetanosaren aurkakoa (hirurak osasun publikoak finantzatzen ditu Espainiako estatuan) eta zoster herpesaren aurkakoa (oraindik ez da dohain eta unibertsala). Txerto horiek guztiak seguruak dira eta oreka ona ageri dute emaitzen eta kostuen artean.

Europan 40.000 lagun inguru hiltzen dira urtean gripearengatik eta gaixotasun horrek dakartzan ondorioengatik; eta Espainiako estatuan, 1.400 eta 4.000 lagun artean. Hiltzen diren guztien % 90 inguru 65 urtetik gorakoak izaten dira, eta horien artean, txertorik hartu ez dutenak % 85.

Gripeak beste gaixotasun larriago batzuk ekar ditzake, pneumonia esaterako; eta hain zuzen ere, 65 urtetik gorakoek izaten dute gaixotasun hori pairatzeko arrisku gehien. Horregatik, urtero, urritik azarora bitartean, txertoa hartzea gomendatzen zaie 60 urtetik gorako pertsonari. Dirudienez, txertoa eman eta handik 14 egunera lortzen da immunitatea. Espainiako estatuan erabiltzen diren gripearen aurkako txertoek ez dute edukitzen birus bizirik, eta, ondorioz, ez dute griperik eragiten.

<consumer.es>. 2014ko urtarrila. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer gomendatzen dute osasun-erakundeek?

- a) Hurrei txerto gehiago ematea.
- b) Helduak txertatzea.
- c) Gurasoek konfiantza osoz umeak txertatzea.

2. Nori ipintzen zaizkie txertoak?

- a) Adin batetik aurrerako gehienei.
- b) Heldu gutxiri.
- c) Ume guztiei.

3. Zergatik agertzen dira sarriago infekzioak urteetan aurrera egin ahala?

- a) Immunitate-sistema zaharragoa delako.
- b) Txertoak hartzeagatik.
- c) Gorputzak ez duelako inolako erantzunik.

4. Zer gomendatzen dute adituek?

- a) Osasun publikoak finantzatzen dituen txertoak hartzea.
- b) Gripearek, zoster herpesaren, pneumokokoaren eta tetanosaren aurkako txertoak jartzea.
- c) Bakarrik unibertsalak diren txertoak jartzea.

5. Zer txerto ordaindu beharko lukete 60 urtetik gorakoek?

- a) Zoster herpesaren aurkakoa.
- b) Gripearek, pneumokokoaren eta tetanosaren aurkakoa.
- c) Denak dira dohainik.

6. Nolakoak dira gomendatutako txertoak?

- a) Merkeak, baina emaitza txarrekoak.
- b) Oso seguruak, baina garestiegiak.
- c) Fidagarriak eta prezio aldetik egokiak.

7. Zenbat lagun hiltzen dira gripearek ondorioz Espainiako estatuan?

- a) 65 urtetik gorakoek artean, txertoa ipini ez dutenen % 85.
- b) 40.000 lagun inguru.
- c) 65 urtetik gorako 4.000tik gora lagun.

8. Zergatik gomendatzen da gripearek aurkako txertoa?

- a) 65 urtekoetan gripea gaixotasun larria delako.
- b) 14 eguneko immunitatea ematen duelako.
- c) Gripeak gaixotasun larriagoak sor ditzakeelako.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A IRUNGO HAZ

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak udal-tramite guztiak egiteko aukera eskaintzen dizu, eta Udalari eta hiriari buruzko informazioa eskura jartzen dizu. San Martzial kalean dago, udaletxearen ondoan, eta zabalik egoten da astelehenetik ostiralera 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Larunbatetan 09:30etik 13:00etara, uztailean eta abuztuan izan ezik. Hilabete horietan, arratsaldez ere itxita egongo da. Alferrikako joan-etorririk ez egiteko, HAZera joan baino lehenago, gomendatzen dizugu web orriko «Tramiteak eta inprimakiak» atala begiratzea, edo aurretik deitzea.

Eskaintzen diren zerbitzuen artean, honako hauek daude: Udalari eta hiriari buruzko informazioa jaso; udalari zuzendutako eskaerak eta instantziak, eta beste administrazio batzuetara zuzendutako dokumentuak erregistratu; aurretiko hitzordua hartu; erreklamazioak eta proposamenak egin; dokumentuak konpultatu, eta izena eman Udalak eskaintzen dituen udaleku, tailer eta ikastaroetan.

<irun.org>

B DURANGOKO HAZ

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua udaletxeko beheko solairuan dago, eta bertan arreta ematen zaie udalerrian bizi diren pertsona guztiei. Zabalik dago astelehenetik ostegunera 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era. Ostiraletan, 08:00etatik 14:00etara. Aste Santuan itxita egongo da arratsaldez, udan ekainaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean, San Fausto jaietan, zubietan eta Gabonetan.

Bulego honetan, besteak beste, zerbitzu hauek ematen ditu Udalak: agiriak erregistratu; erroldan alta eman (jaioberrienak udaletxeko lehen solairuan egiten dira), udal-erroldan aldaketak egin eta errolda-ziurtagiriak eskatu; diru-laguntzak eskatu; obra-baimenak tramitatu, oposizioetan parte hartzeko eskaerak, kexak eta proposamenak aurkeztu; ordainketak egin; autoen likidazioak egin; altzari, etxetresna elektronikoak eta beste tresna batzuk biltzeko eskaera egin; galdutako gauzak jaso eta eman; animalia arriskutsuak izateko lizentzia eskatu, eta trafikoko isunei buruzko espedienteen jarraipena egin.

<durango-udala.net>

C ABANTO-ZIERBENAKO HAZ

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, Udalak eskaintzen duen zerbitzu berri honetan, tramite guztiak egin daitezke: informazioa jaso, dokumentazioa aurkeztu eta udal-tramiteak bideratu. Erabat doakoa da. Udaletxearen beheko solairuan dago eta zabalik dago astelehenetik ostiralera goizeko 07:30etik 14:30era.

HAZEN bideratzen diren tramiteen artean, honako hauek daude: obretarako lizentziak eskatu, zergak ordaindu, dokumentuen sarrerak erregistratu, udal-erroldan altak eta aldaketak egin, bizitokiaren eta helbidearen aldaketa egin herritarren erroldan, diru-laguntzen eskaerak egin, ordainketak egin, kexak eta proposamenak aurkeztu eta gizarte-langilearekin hitzordua eskatu. Funtzionarioek herritarrari aholkuak emateaz gain, agiriak betetzen lagunduko diote. Gainera, Internet erabiltzea eta gestioak telefonoz egitea bultzatuko da. Erroldaren kopia telefonoz eska daiteke eta herritarren etxera bidaliko da.

<abanto-zierbena.org>

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

9.	Udaletxetik kanpo dago kokatuta.
10.	Larunbatetan ere zabalik egoten da ia urte osoan.
11.	Ordutegi berbera dute urte osoan.
12.	Ez da udaletxera joan behar errolda-agiria eskatzeko.
13.	Lanpostu batera aurkezteko, izena emateko aukera dago.
14.	Tramite bat egitera joan aurretik, komeni da udaletxera deitzea.
15.	Ume jaioberrien altak ez dira HAZen egiten.
16.	Etxeko aparatuak biltzeko abisuak ere hartzen dituzte.
17.	Beste administrazio batzuetara bidaltzen diren dokumentuak ere erregistratzen dituzte.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

MENDIKO ESKIA KIROL EZIN HOBEA DA NEGUAN MENDIAZ GOZATZEKO

Eskiak oinetan eta kamera eskuan edo buruan, hala ibiltzen dira mendian Jon, Mikel eta Xabier Iruñeko anaia eskiatzaileak. Paueko eski-zinema jaialdian bigarren saria lortu ondoren, *Bilbao Mendi Filma* dute amets.

18

Han bildu ziren 400 pertsonak gure lana horren ongi puntuatzea pozgarria izan zen guretzat. Gainera, saria bera ere handia izan zen.

19

Mendiko eskiko irudiak izan ziren gehienak, eski-denboraldian egindako irteeren nahasketa bat. Pozgarria da halako lehiaketetan mendiko eskiko filmak gustuko izatea. Dena den, azken urteetan aurkeztutako lanak gero eta profesionalagoak dira, eta gu bezalako amateurrek zail dute halako jaialdietan sariak eskuratzea.

20

Hirugarren aldiz hartu dugu parte *Ride Pyrenees Film Festival* jaialdian eta *Skimtraje*-an. Filmak editatzen trebatzen garenean, *Bilbao Mendi Film Festival* jaialdian parte hartzea gustatuko litzaiguke.

21

Bi kamera erabiltzen ditugu normalean: mugimenduan filmatzeko, hau da, jaitzieretan edo foka-larruekin goazenean, kamera bat erabiltzen dugu kaskoan edo makilan jarrita; eta argazkiak egiteko, normalean reflex kamera erabiltzen dugu.

22

Proba batzuk egin eta gero, berehala ohitzen zara. Elur-jausi arriskua baldin badago, ezin gara edozein lekutan geratu irudiak grabatu edo argazkiak egiteko, oso erraza baita halakoetan guk geuk eragitea elur-jausia.

23

Mendiko eskian ibiltzen gara gehienbat, baina pistetan ibiltzea ere gustatzen zaigu. Mendiko eskian seguru ibiltzeko, ezinbestekoa da lehenago eski-estazioetan teknika landu eta konfiantza hartzea.

24

Malda handiko korridoreak gustatzen zaizkigu. Egun bakar batean igo eta jaits daitezkeen mendiak aukeratzen ditugu gehienetan. Interneten, blogak eta foroak erabiltzen ditugu elurraren egoera eta eguraldia kontsultatzeko eta mendien isurialde onenak bilatzeko.

25

Haran osoak hondatzen dituzte, eta pista berriak irekitzeko lur-mugimendu handiak egin behar dira. Gainera, inpaktu edo kalte bisuala ere handia da, udan zein neguan. Horregatik gustatzen zaigu mendiko eskia, mendian libre ibiltzeko modua ere badelako, inguruan azpiegiturarik gabe

LENDINEZ, Ainhoa.
Berria, 2015eko otsailaren 3a.

3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Nolako filma da *Zuri guztiak ez dira irin*?
- B. Pistetatik mendira pasatu zarete, beraz?
- C. Arriskutsua da eskiatzen zoaztela irudiak grabatzea?
- D. Noiz hasi zineten eskiatzen?
- E. Zeren arabera aukeratzen dituzue hormak eta jaitsierak?
- F. Nola filmatzen dituzue irudiak?
- G. Eski-pistek kalte egiten diote mendiari?
- H. Zer esan nahi du zuentzat Paueko zinema-jaialdian bigarren sailkatzeak?
- I. Lehenengoz aurkeztu zarete halako lehiaketa batera?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

- GAIA:** Goizero zure herriko parkera korrika egitera irteten zara eta ia-ia egunero txakurren gorotzak topatzen dituzu bidean.
- Kexa bat ipintzea erabaki duzu.
- Udaletxean erreklamazio-orria eman dizute. Azal ezazu zer gertatu zaizun eta zer konponbide proposatzen duzun.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Oporretan dagoen lankide baten mezua jaso duzu.

■ Hauxe da jaso duzun mezua:

The screenshot shows an email client interface. At the top, there are buttons for 'Bidali', 'Gorde', and 'Baztertu'. Below these is the 'Norentzat:' field containing 'Josu Agirre'. There are links for 'Gehitu Cc' and 'Gehitu Bcc'. The 'Gaia:' field contains 'Kultur Astea' and a link for 'Erantsi fitxategia'. A rich text toolbar is visible with various icons for text formatting and alignment. The email body contains the following text:

Egun on, Josu:

Datorren astean bueltatuko naiz oporretatik eta, Kultur Astea ganean dugunez, lanera itzuli aurretik lanak zertan diren jakin nahi nuke: zer dagoen antolatuta, zer dagoen egin gabe, zerk duen lehentasuna...

Astelehenean hor izango naiz. Erantzun iezadazu lehenbailehen, zertan hasi behar naizen jakiteko.

Zure erantzunaren zain.

Gero arte.

Ainara

■ Erantzun iezaiozu lankideari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «TXERTOAK EZ DIRA HAURRENTZAT BAKARRIK»

1.	B	2.	B	3.	A
4.	B	5.	A	6.	C
7.	A	8.	C		

■ **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.

■ **Irakurgaia:** «HERRITARRENTZAKO ARRETA ZERBITZUAK»

9.	A	10.	A	11.	C
12.	C	13.	B	14.	A
15.	B	16.	B	17.	A

■ **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.

■ **Irakurgaia:** «MENDIKO ESKIA»

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	H	A	I	F	C	B	E	G

Soberakoa	D
-----------	---